

Martxoaren 24an
GARIZUMAKO 3. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako hirugarren igandea dugu: Jauna gurekin dago pazko-argirantzako gure ibilbidean. Penitentzia aldia da Garizuma, baina ondoan behar ditu horrek justiziaren eta karitatearen aldeko borroka. Honela gertatzen da garizumako ibilbidea egiazko bihotz-berritze, Jaunari bihotz askez jarraitzeko bide.

Damu-otoitza

Ospakizun hau hastean, eska diezaiogun Jainkoari eman diezagula egiaz bihotz-berritzea; era honetan, adiskideturik, Jainkoarekiko eta senideekiko gure batasuna sendotuko zaigu.

- Jesus Jauna, gizadiaren salbamera gurutze-habea ezarri zenuena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, guk zure urratsei jarraitzeko, / gugatik nekaldia jasan zenuena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gu, bekatuak hilik, santutasunerako bizi gaitezen / gure bekatuak zeure bizkarrean habe gainera eraman zenituen: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Otoitza

**Erukiaren Aita eta on guztien iturria zaren Jauna,
 baraua, otoitza eta limosna
 ipintzen dizkiguzu geure bekatuen sendagarri
 begira bihotz onez
 bere ahuleria aitortzen duen zure herriari,
 eta bizkor gaitzazu, zeure erruki handiz,
 bekatuaren zamapean aurkitzen garenok.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Gizakiaren historian parte hartzen du Jainkoak. Gizakien lurrean bizi da, gugan. Eta hau “lur santua da”, aukera ematen zaiona, lehenengoan mozten ez dena: bihotz-berritzearen eta salbamenaren Jainkoa dugu aurrez-aurre.

Lehenengo irakurgaia (*Ir [Ex] 3, 1-8a. 13-15*)

Exodo liburutik

Egun haietan, Moises, bere aitagarreba Jetroren, Madiango apaizaren, ardiak zaintzen zebilen; basoaz beste aldera eraman zituen, eta Horeba, Jainkoaren mendira, iritsi zen. Han Jaunaren aingerua agertu zitzaion, sasi artetik ateratzen zen sugar batean. Moisesek begiratu zuen, eta sasia, sutan egonik ere, ez zen erretzen.

Orduan Moisesek esan zuen: «Banoa gauza harrigarri hau ikustera: nolaz ez den sasia erretzen». Ikusi zuen Jaunak, ba zihoala begiratzera, eta dei egin zion sasi artetik, eta esan: «Moises,

Moises!» Honek erantzun: «Hemen nauzu!» Eta Jaunak: «Ez hurbildu; ken oinetakoak, lur santua da eta zu zauden tokia».

Eta esan zion gainera: «Ni zure gurasoen Jainkoa naiz, Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoberen Jainkoa». Orduan Moisesek aurpegia estali zuen, Jainkoari begiratzeko beldurrez.

Jaunak esan zion: «Ikusi ditut Egipton dagoen nire herriaren nekeak, entzun ditut haien marmarrak, beren langilezainen aurka; ezagutu ditut haien oinazeak. Beraz, jaitsi egin behar dut, egiptoarren eskuetatik nire herria ateratzeko, eta lur hartatik lur on eta zabalera igo erazteko, esnea eta ezitia darion lurraldera».

Moisesek esan zion Jainkoari: «Bai, Jauna, joango naiz israeldarengana, eta esango diet: "Zuen gurasoen Jaungoikoak bidali nau zuengana". Eta haiek galdetzen badidate: "Nola du izena?", nik zer erantzun behar diet?» Jaungoikoak Moisesi: «Naizena naiz Ni. Eta honela esango diezu israeldarrei: "Ni-naiz"ek bidali nau zuengana».

Jainkoak gainera esan zion Moisesi: «Honela hitz egin behar diezu israeldarrei: "Jaunak, zuen gurasoen Jainkoak, Isaaken Jainkoak, Jakoberen Jainkoak, bidali nau zuengana. Hau da nire izena behin betirako; honela deituko nauzue menderen mendeetan"».

Erantzun-salmoa (Sal 102, 1-2. 3-4. 6-7. 8 eta 11)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a
ta mai - ta - su - na.



Ene arima, goretsazu Jauna,
neure barren osoak Haren izen deuna.

Ene arima, goretsazu Jauna,
eta ez ahaztu Hark zuri egina. R/.

Hark barkatzen baititu zure hobenak,
sendatzen zure gaitzak denak;
begiratzen du heriotzatik zure bizia,
ematen dizu buruntzat grazia eta errukia. R/.

Jaunak egintza zuzenak ditu egiten,
zapaldu guztiei berena die itzultzen.
Erakutsi zion bere bidea Moisesi,
Berak eginak Israelgo seme-alaba guztiei. R/.

Errukior da Jauna eta kupibera,
berant-haserre eta guztiz onbera.
Zerua lurretik goi dagoen adinean,
goi da Haren maitasuna beldur diotenen gainean. R/.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 10, 1-6. 10-12)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Ez zaituztet ezjakinean eduki nahi; gure arbasoak denak egon ziren hodeipean; denek igaro zuten itsasoa; eta hodeian eta itsasoan denek hartu zuten, Moisesi lotzen zituen bataio bat; denek jan zuten espirituzko janari berdina, eta denek edan, espirituzko edari bera; berekin batean zihoan espirituzko harkaitzetik edaten bait zuten; harkaitza, berriz, Kristo zen. Haietako asko eta asko,

ordea, ez zitzaizkion atsegin izan Jaungoikoari; eta hilda gelditu ziren basamortuan.

Gauza hauek aurreirudi gertatu ziren guretzat, guk gaiztakeriarik irrika ez dezagun, haiek irrikatu zuten bezala. Ez zaitezteela marmarrean ari, haietako batzuk ari izan ziren bezala, eta heriotza emailearen esku hil ziren.

Guzti hau gure ikasbiderako gertatzen zitzaien; eta gu, azken aldi honetan bizi garenok, zentzarazteko idatzi zen. Beraz, zutik dagoela uste duenak, begira beza eror ez dadin.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Mt 4, 17)

Ain - tza Je - sus, Zu - ri be - ti, Zu za - ra gu - re ar - gi.

Bihotz-berri zaitezte —dio Jaunak—,
hurbil da eta zeruetako erreinua.

Ebanjelioa (Lk 13, 1-9)

Homiliarako argibideak

Fruitua ematea

Batzuen ustez, munduko gaiztakeria da ateismoaren arroka sendoa. Hondamendi naturalen, izurrien eta gerren aurrean, Jainkoa existitzen ez den, edo Jainkoari munduak ihes egin duen edo abandonatu egin duen inpresioa daukagu. Askok egiten dute ondorengo galdera hau: Jainkorik bada? Non dago Jainkoa? Nola

onar dezake Jainkoak horrenbeste errugabe hiltzea? Zer egin diot nik Jainkoari?

Jesusek gaurko ebanjelioan (Lk 13,1-9) azal dutako heriotza tragikoei emandako erantzuna baino ezin die eman fededunak galdera horiei. Jainkoak eta gizakiek ez dute desastre horien inolako errurik. Jainkoak, baina, zerbait esan nahi digu horien bidez. Mezu hori da jaso behar duguna. Zer eskatzen zaigu hondamendi horiekin? Batez ere, **elkartasuna**. Fededunak eta federik ez dutenak ados gaude horretan. Sufritu egiten dugu sufritzen ari direnekin, eta gure laguntzarekin, min hori arintzen saiatzen gara. Fededunak, baina, **konbertsiorako** deia ere jasotzen du, gure bizitza Jainkoarengana bihurtzeko deia, erruki-lanak egitera jotzeko deia.

Itxuraz, ez dago inolako harremanik gertakariaren eta mezu horren artean. Gu bihurtzeak ez du lurrikararik ez egotea edo errugaberik ez hiltzea ekarriko. Egia da, baina Jesus kezkatuta dago gizakiaren patuarekin. Ez tragikoki amai daitekeen lurreko patuarekin bakarrik. Gizakiaren betiereko patuarekin dago kezkatuta, gure biziarekin galtzarekin. Txarrena ez da lurrikara edo gerra batean hiltzea, lasai-lasai ohean, geurekoikerian, eta Jainkoari bizkarra emanda hiltzea baizik. Benetan hiltzen gara horrela, alferrik galtzen da bizia. Jainkoarengana etengabe bihurtzea da geure bizia ziurtatzeko modua; ez lurrikaren kontra, **behin betiko galbidearen** kontra baizik.

Jainkoak hautatu izanak ez dio ematen herriari inolako **salbazio berme magikorik** (1 Kor 10, 1-6. 10-12). Exodoan, Jainkoak euren alde egindako balentria handiak bizi izan zituzten israeldarrek: hodeiak babestu zituen, itsasoa zeharkatu zuten, mana jan zuten, haitzetik mirarik isuri zen ura edan zuten. Euren bekatuzko jokabidearekin Jainkoari atsegina eman ez zieten askorentzat alferrik izan zen, ordea: gaizkia irrikatu zuten, protesta egin zuten. Hori ez

da iraganeko kontua, guri ere gerta dakiguke, benetan bihurtzen ez bagara. Alferrik izango da kristauak garelako esatea, Elizako kide garelako, gure jokabidea paganoena bezalakoa bada.

Graziazko garaia da Garizuma, bihurketarako garaia. Jainkoak ematen digun **aukera handia**; ez da grazia merke baten merkealdia, alderantziz: gure bizitzan Jainkoaren maitasuna serio hartzeko eta gure maitasunarekin erantzuteko garaia da. Urteak joan eta urteak etorri, fruiturik ematen ez duen pikondo antzu baten antzekoa izan daiteke gure bizitza. Jainkoaren deiari eta sufritzen ari diren gure neba-arreben oihuari erantzunda bakarrik izango gara gai, Moises bezala, bizitza emankorra edukitzeko (*Ex 3,1-8.13-15*).

Eukaristiaren bitartez, Kristorengan txertatutako gure bizitzak mundua salbatzeko fruitu onak eman ditzala.

Jainkoaren herriaren otoitza

Basamortuan otoitzari emana bizi izan zen Jesus gure Jaunaren ereduari jarraituz, egigun otoitz guk ere aspergabe Jainkoari:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

—Fededun guztiak, Garizumako penitentzi eta ekinaldien bidez, beren erruetatik garbituak eta kristau bizitzan sendotuak izan daitezten. Egigun otoitz. R/.

—Herri guztiek iris dezaten beharrezko bakea baretasuna eta ongizatea, era horretan zeruko ondasunak errazago bila ditzaten. Egigun otoitz. R/.

—Jaunak, tentatuak edo minduak direnei indarra, bekatariei bihotz-berritzeko gogoia eta triste eta atsekabetuta daudenei barne-poza eman diezazkien. Egigun otoitz. R/.

—Jaunak bihotz-berritzeko egiazko gogoia gugan sorraraz dezan, pazko-sakramentuak ospatzeko behar bezala presta gaitezen. Egigun otoitz. R/.

Aita errukiorra, Zuk ez dituzu zeure seme-alabak sekula eskutik uzten, baizik eta Zure izenaren aintza agertzen diezu; entzun gure otoitzak eta egizu, Zure erakutsiak haurren xalotasunez onartu eta egiazko bihotz-berritzearen fruituak eman ditzagula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

II. prefazioa erabil daiteke (Meza liburua 324. or.).

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Betiko salbamenaren agiria dugu, Jauna,
hartu dugun oparia;
egizu, orain sakramentuz ematen zaiguna
bere betean irits dezagula geroko bizitzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bukaerako oharpena

Bagoaz. Bazter asko dago hobetzeko. Izkin asko dago Jainkoa eramateko. Jaunaren Espiritua dugu indar eta babes.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.
Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Gida ezazu, Jauna, zeure fededunon bihotza
eta eman errukitsu zeure zerbitzarioi grazia hau:
Zuganako eta lagun hurkoaganako maitasunean iraunez,
zure aginduak oso-osorik betetzea.**

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.

**Bedeinka zaitzate! Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.

*Herriaren gaineko otoitzaren orde, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia
(liburuxka honetan, 6. orrialdean).*